

# MARIA MARKOTEGI SARIAK 2016

## OINARRIAK

**Parte hartzaileak:** Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

**Sailak:** Lehiaketak hiru sail izanen ditu: narrazio laburra, poesia eta komikia.

**Kategoriak:** Lehiaketaren sail bakoitzean honako kategoria hauek bereiziko dira:

- a) LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena.
- b) DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.
- c) DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.
- d) Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena.

**Lanak aurkezteko epea:** Lanak aurkezteko epea 2016ko martxoaren 18an bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

**Sakanako Mankomunitatea**

**Uriz 32**

**31830 Lakuntza**

**Telefonoa: 948 464840**

**e-posta: [euskara1@sakana-mank.com](mailto:euskara1@sakana-mank.com)**

**Lanak aurkezteko modua:** Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izengoitia, saila eta kategoria.

**Baldintzak:**

- a) Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira.
- b) Gaia librea izanen da.
- c) Ez dira bertsopaperak ametituko.
- d) Lanek ondoko luzera izanen dute: olerkietan 14 lerro gutxienez eta 40 gehienez; komikietan orrialde bat gutxienez eta 5 gehienez; eta narrazio laburretan LHko 5. eta 6. mailetako ikasleek orrialde bat gutxienez eta 3 gehienez, DBHko ikasleek 2 orrialde gutxienez eta 5 gehienez eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek 3 orrialde gutxienez eta 8 gehienez.
- e) Literatur lanak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, Arial letra mota erabiliko da eta 12 puntuko hizki-tamaina.
- f) Komikiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztuko dira, Din A4 tamainan. Ordenagailuz edo eskuz egin daitezke.
- g) Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- h) Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

**Sariak:** Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira hogeita lau sari izanen dira, sail bakoitzean zortzi.

<b>Narrazio laburren saila</b>		
<b>Kategoria</b>	<b>Saria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena	<b>1. saia</b>	<b>50 €</b>
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>40 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena	<b>1. saria</b>	<b>70 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>60 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena	<b>1.saria</b>	<b>90 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>80 €</b>
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetakoko ikasleena	<b>1.saria</b>	<b>110 €</b>
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>100 €</b>

<b>Poesia saila</b>		
<b>Kategoria</b>	<b>Saria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena	<b>1. saia</b>	<b>50 €</b>
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>40 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena	<b>1. saria</b>	<b>70 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>60 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena	<b>1.saria</b>	<b>90 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>80 €</b>
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetakoko ikasleena	<b>1.saria</b>	<b>110 €</b>
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>100 €</b>

<b>Komiki saila</b>		
<b>Kategoria</b>	<b>Saria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena	<b>1. saia</b>	<b>50 €</b>
LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>40 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena	<b>1. saria</b>	<b>70 €</b>

DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>60 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena	<b>1.saria</b>	<b>90 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>80 €</b>
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	<b>1.saria</b>	<b>110 €</b>
Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>100 €</b>

**Sari banaketa:** Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

**Argitalpena:** Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

**Epaimahaia:** Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturaren nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egingen ditu. Aurkeztutako lanek gutxienezko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak ex aequo moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.